

## antzerkia

## ■ Donostia

● Tutik ere Clowns taldeak Ez adarririk jo ikuskizuna taularatuko du, Lugaritz kultur etxean, 18:00etan.

## ■ Elorrio

● Markeline taldeak La Garbosa antzez-lana taularatuko du, Arriola kultur aretoan, 10:30etan eta 15:00etan.

## hitzaldiak

## ■ Arratia

● 'Inguruaren bilakaera, garapena eta babes' hitzaldia eskainiko du Joserra Aihartzak, aretoan, 10:15etan.

## ■ Bilbo

● Kultur hitzordua. 'Ihautea: kaosarekiko orekan' hitzaldia eskainiko dute J.A Urbeltzek eta J.A Irigaraiak, Kafe antzokian, 20:00etan.

## ■ Gasteiz

● 'El Ciberestadio: una nueva forma de vivir el deporte' hitzaldia eskainiko du Iñaki bengoak, Villa Suso jauregian, 19:30etan.

## ■ Leioa

● 'Ingurugiro eta erakunde ekologisten hedabideak' hitzaldia eskainiko du Benigno Varillaek, EHUko kazetari-tzeko gradu aretoan, 09:00etan.

● 'Telebista eta ingurugiroa' hitzaldia eskainiko du Pere Orteinek, EHUko gradu aretoan, 11:00etan.

## ■ Oñati

● 'Ondo elikatuz, osasuna zaindu' hitzaldia eskainiko du Arantxa Lizasok, Txantxiku ikastolan, 18:30etan.

● 'Putreak: sarraskijale edo harropakari?' hitzaldia eskainiko du Migel Mari Elosegi biologoak, Natur eskolan, 19:00etan. Ingurugiro astearren barruan.

## musika

## ■ Bilbo

● Iain Matthews kantautore eta gitarra joleak kontzertua eskainiko du, Industria Ingenierien Goi eskolan, 19:00etan.

## ■ Burlata

● Avalanch. Black Rose tabernan, 20:30etan.

## ■ Donostia

● Euskadiko Orkestra Sinfonikoak W.A Mozarten eta A. Bruckner-en obrak interpretatuko ditu. Ara malikia izango da biolin jole solista. Victoria Eugenia antzokian, 19:45etan.

## a g e n d a

d

a

n

t

z

a

**Fitxa** Taldea: Bordeleko Opera Baleta. Obra: Intxaur-hauskailua. Musika: Txaiikovski. Koreografia: Charles Judes. Lekua: Miarrizteko Gare du Midi. Eguna: Otsailaren 14a.

## Errusiako haizetxo!

MIARRITZEKO Gare du Midi deritzon antzokian, Bordeleko Antzoki Handiko dantzariak ziren gomitatua larunbat gauean. Intxaur-hauskailua, eguberriko ipuin famatua aurkezten ziguten, eta bursoak ez ziren, ez, atzo tronpatu beren haurrak ekartzerakoan, Intxaur-hauskailua baita baletera hurbiltzeko obra onena. Txaiikovskiren musika gure belarrietan ezagunegia da agian, baina beti ura bezala isuriz doa. Loreen balsetik bigarren parteko mundu guziko musiketara, gure musikari errusiarrak melodia zoragarri eta dantza-garrismoak sortu ditu musika herrikoien gainean oinarrituz. Istoriolari pixka bat hurbilduz, bizitzaren gauza xehe batetik abiatzen da bi aktotan zatikatzen den obra hau. Eguberri gauez, Marie deitutako neskatza batek intxaur-hauskailu bat hartzen du bere goxaita den Desselmeyer aztiaren eskuetatik. Mariek sagu eta saguzaharren mehatxutik salbatuko du bizirik gelditu den intxaur-hauskailua, eta azkenean

eskertzeko printze bihurtuta jostailu eta gozoen mundura eramango du gure neskatza gau batendako, eta azkenean ezkontzeko mundu magiko honetan tearen, kafearen, txokolataren dantzak eta beste hainbat izanen dituzte ikusgai. Petiparen kontrzeptiotik heldu zaigu, Balarchinen ustez, balet hau, eta gehitzen du lehen partean ez dela gauza handirik gertatzen. Haur bihurri batzuen gainean oinarritzen da lehen margo hau, eta egia da hasiera pixka bat luzea iruditu zaigula, nahiz eta seguraski publikoan ziren umeentzat miresgarria izan momentu hau, kolorez, jantziz eta apainketez bete. Harritzeko edo amesteko egina dago, eta elur maluten karro biziarekin San Petersburgoko girora eramaten gaitu balet honek, nahiz eta Bordeleko Charles Judes zuzendariaren koreografiak aski zaharkitu eta errepikakorra irudi. Egia da dantzari on-onak ere ez dituela bere zerbizuan Bordeleko talde honetan, baina betiko zepoan erortzen da, gure ustez,

Judes koreografoa. Talde murriztu baten aitzinean zarelarik, simplifikatzen lana eraman behar duzu teknika mailan, arlo artistikoan jendea askatzeko. Eta kasu honetan dantzariak eta koreografiak itoak ziren gure ustez, laster joaten ziren momentuetan batez ere. Sandra Masse solistak Marien rola aski ongi betetzen zuela errango genuke, haur giroan ongi kokatzen gintuelarik. Baina teknikoki ozta-ozta gaintzen zituen aski oinarrikoak ziren urrats batzuk. Ordezkarri gisa genuen, eta agian ez zuen hor lan errazena bere printzearekin binakazko adagioetan, saio batzuen eskasa nabari zelako adibidez. Bigarren planoko dantzarietan dantzari xoragarri bat agertu da Pertsiko ematez jantzirik, baina bere izenaren berririk ez zegoen egitarauan. Hogeita hamar dantzari osatutako taldeak Bordeleko kontserbatorioko ikasle batzuekin partekatzen zuen taula, eta lehen zatian protagonismo anitz ukan zuten dantzari-haur horiek. Nahiz eta Intxaur-hauskailu hau bigarren mailakoa izan puntu aniztatik ikusita, haurrak eta profesionalak nahastea biziki tradizio positiboa iruditzen zaigu Marinski antzokitik heldu zaigun ohitura hau.

Pantxika Telleria

## ■ Gasteiz

● Old Timers Jazz Band taldeak kontzertua eskainiko du, Araba aretoan, 20:00etan.

● Los Padrinos rock & roll taldeak kontzertua eskainiko du, Parral tabernan, 20:30etan.

## zinema-bideoa

## ■ Bilbo

● 'Viva el amor' filmaren emanaldia izango da, Indautxuko El Carmen aretoan, 19:45etan.

## ■ Donostia

● 'One song' fikziozko filma ikusgai, Larrotxene kultur etxean, 20:00etan. Proiekzio gehiago egongo dira jarraian.

## ■ Getxo

● 'Chiapas' filmaren emanaldia, Algortako Uribe Kostako komite internazionalisten lokal berrian, 19:30etan.

## erakusketak

## ■ Bilbo

● Euskal akuarelisten erakusketak zabalik dago, Santa Maria kaleko Trueke

2000 galerian, martxoaren 3ra bitartean.

● Aitor Ortiz artistaren 'Caosmos' argazki erakusketak ikusgai, Bidebarrietako liburutegian, gaur azken eguna.

● 'Caosmos' Aitor Ortizen argazki erakusketak ikusgai dago, Bidebarrieta kulturunean, gaur azken eguna.

● 'Procesos y proyectos' Iñigo Caboren erakusketak zabalik dago, Rekalde aretoan, martxoaren 1era bitartean.

## ■ Donostia

● 'Herri baten argia' Eduardo Arrillagaren argazki erakusketak ikusgai dago, Gipuzkoako argazkilari elkartearen, bihar arte.

● Gorka Aranburu artistaren erakusketak dago zabalik, Casares kultur etxean, gaur azken eguna.

## ■ Elgoibar

● Tina Modotti artistaren argazki erakusketak dago zabalik, Kultur Etxean, otsailaren 28ra arte.

## ■ Gasteiz

● 'Dónde está tu media naranja' Emakundek antolatutako erakusketak ikusgai, Europa kongresu jauregian, otsailaren 20ra bitartean.

● Foo Ruiz Dominguez margolariaren

lanak ikusgai, Dukkesa espazioan, otsailaren 19ra bitartean.

## ■ Lizarra

● 'El Paso' erakusketak ikusgai Kultur Etxean, martxoaren 8ra bitartean.

## ■ Mungia

● 'Bosteko' erakusketak dago zabalik, Torrebillela kultur etxean, otsailaren 28ra bitartean.

## ■ Ordizia

● Arrate Perez margolariaren pintura erakusketak zabalik dago, Barrena kultur etxean, otsailaren 20ra bitartean.

## ■ Oiartzun

● Juan Gorriti eta Zivika artisten erakusketak ikusgai daude Pagoalde erakusketak aretoan, otsailaren 22ra bitartean. Imanol Irigoien eta Anton Mendizabalen erakusketak finkoak ere ikus daitezke.

## ■ Tolosa

● Jose Ramon Sanchez artistaren 'El Quijote' erakusketak zabalik dago Aranburu jauregian, otsailaren 21era bitartean.

## lehiaketak

## ■ Bilbo

● Idatz & Mintz Literatur lehiaketa. Nahi duen orok har dezake parte. Bizkaieraz idatzirik egon behar dute lanek; jatorrizkoak eta sekula argitara eman gabekoak. Narrazio lanon luzera gehienez 10 orrikoa izango da. Lanen amaieran lema joango da, eta ondoren joango den kartazalean, lemarekin batera, datu pertsonalak joango dira. Lanak 'Idatz & Mintz' lehiaketa, Labayru ikastegia, Aretxabaleta kalean, 1 zenbakira bidali behar dira, martxoaren 30a baino lehen.

## ■ Durango

● Ipuin labor, bertso paper eta komiki lehiaketa. Edonork har dezake parte lehiaketa hauetan. Lau talde egongo dira adinaren arabera. Gaia librea izango da, eta lanek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Hiru kopia, makinaz eta tarte bikotzaz. Komikiak zuri beltzez nahiz koloretan izan daitezke. Gai guztiak goitizenez sinatuko dira, eta lanekin batera kartazal batean datu pertso-

nalak joango dira, azalean goitizenez berbera. Lanak Berbaro Elkartera bidali behar dira. 'Ipuin labor, bertso paper eta komiki lehiaketa', 267 Postakutxa, 48.200, Durango helbiderahain zuzen, eta lehiaketa bakotzean bete behar diren xehetasun gehiago eskatzeko ere helbide horretara jo behar da. Lanak aurkezteko epea martxoaren 20an amaituko da.

## ■ Urnieta

● Antia Literatur saria. Ipuinak euskaraz idatzirik izango dira, eta beste lehiaketa batean saririk jaso ez duena izango da. Gaia librea, eta lehiakideak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Bi maila bereziko dira: lehenengo mailan 14 urte baino gutxiago dituzten herriko gazteek hartuko dute parte. Bigarren mailan, aldiz, 14 urte baino gehiago duten herrikoek nahiz kanpokoek har dezakete parte. Lehen mailako lanen luzera gutxienez hiru orritakoa eta gehienez seikoa izango da. Hela duen mailan, aldiz, gutxienez zortzikoa eta gehienez hogeikoa. Lanak makinaz idatzirik eta biko tardez aurkeztu behar dira, eta goitizena eramango dute. Egilearen daturik ipini gabe kartazal itxi batean joango da. Beste kartazal batean, egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta ipuinaren izenburua edo goitizena joango dira. Lanak Lekaio kultur etxean utzi behar dira, edo Lekaio kultur etxea, San Juan plaza, 20.130 Urnieta helbidea bidali behar dira, martxoaren 24a baino lehen.


## bestelakoak

## ■ Iruñea

● Poesia errezitala. 'Apología del soneto: los veinte mejores sonetos de la lírica española'. Sagrario Doméñok eta Teodoro Gonzalezek errezitatuko dituzte. Ateneoan, 19:30etan.

## ■ Tolosa

● Ipuin kontakizuna. Itziar Zubizarreta ipuin kontakizunari unauterrien inguruko istorioak kontatuko ditu, Kultur etxeko haur liburutegian, 18:00etan.



Eduardo Arrillagaren 'Herri baten argia' argazki erakusketak ikusteko bihar da azken eguna. Donostian, Gipuzkoako argazkilari elkartearen dago ikusgai.